

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Eskolatze Batzorde Nagusiak gurasoak, sindikatuak, hezkuntza-zentroak eta toki-entitateak barruan hartuko ditu

*Organo horrek Foru Komunitateko hezkuntza-zentroetan ikasleak onartzeko prozedura behar den moduan aplikatzea zaintzen du*

Lunes, 09 de mayo de 2011

Nafarroako Gobernuak gaur onetsitako foru-dekretu baten bidez Eskolatze Batzorde Nagusiaren osaera eta eginkizunak aldatu dira. Organo hori Hezkuntza Departamentuaren mendekoa da eta Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta itunduetan ikasleak onartzeko prozedura behar den moduan aplikatzea zaintzen du.

Batzordea organo parte-hartzaileagoa izan dadin, hezkuntza-erkidegoko eta beste erakunde batzuetako ordezkariak barruan hartuko ditu, hala nola toki entitateak, sindikatuak, hezkuntza-zentroak eta gurasoen elkarteak. Orain arte Hezkuntza Departamentuko langileek soilik osatzen zuten.

Modu horretan, Batzorde berriaren buru Ikuskaritza eta Zerbitzuen zuzendari nagusia izango da eta hamalau kide izango ditu. Zazpi Administrazio kideak izango dira, hots, hurrengo hauetako zuzendariak: Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzua; Aniztasuna, Orientazioa eta Multikulturalitatea; Lanbide Heziketa; eta Ikaskuntzarako Zentroak eta Laguntzak; Orientazio eta Multikulturalitate Ataletako buruak eta Hezkuntza Departamentuko idazkari orokor teknikoa. Horiekin batera udal ordezkari bat egongo da, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendatutakoa; hezkuntza-zentroen bi zuzendari, sindikatuen bi ordezkari eta gurasoen elkarteetako bi ordezkari, horietako bat sare publikoa ordezkatzuz, eta bestea sare itundua.

Bestalde, gaur onetsitako dekretuak Batzordearen eginkizunak aldatu ditu. Administrazio eta betearazpen organoa izatetik aholkularitza eta proposamen organoa izatera igaroko da. Betearazpen-eginkizunak zentroein eta Hezkuntza Departamentuari erreserbatuta egongo dira. Hezkuntza Departamentuak ikasleen eskolatzea egingo du, Eskolatze Batzorde Nagusiak ezarritako irizpideak eta jarraibideak beteta. Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

- Ikasleak onartzeko prozesua eta Tokiko Eskolatze Batzordeen jarduna koordinatzea eta onarpen prozesuaren baremazioa eta ezarritako lehenetsun-irizpideen aplikazio egokia gainbegiratzea.

- Zentroek igorritako irizpide osagarriak zentroko organo eskudunak modu justifikatuan ikusitako eta irizpide objektiboen arabera adostutako ingugar aipagarriak direla kontrolatzea.

- Lehenengo tokian eskatutako zentroan plaza lortu ez duten ikasleak eta beharrian bereziak dituztenak eskolatzeko irizpideak betetzen direla gainbegiratzea.

- Epez kanpo zentroa aldatzeko eskaerak baimentzea behar den moduan justifikatutako ingurubar bereziak daudenean.

- Hezkuntza Departamentuak planifikatutako hezkuntza-eskaintza ezagutzea.

- Zentroi eta Tokiko Eskolatzeko Batzordeei 31/2007 Foru Dekretuari –ikasleak Nafarroako zentro publiko eta pribatuetan onartzea arautzen du- eta xede horretarako onetsitako araudiari buruzko informazioa eta aholkularitza ematea.

### **Tokiko Eskolatzeko Batzordeak**

Dekretuaren bidez, lau Tokiko Eskolatzeko Batzorde iraunkor sortu dira Lizarran, Tafallan, Tuteran eta Iruñerrian. Batzorde horiek, haien esparruan, ikasleak onartzeko prozesuari buruzko informazioa eta aholkularitza ematen dute eta prozesua gainbegiratzen dute. Gaur onetsitako testuaren arabera, aldi baterako Tokiko Batzordeak eratu ahal izango dira (ikasturte bateko eskolatzeko-prozesurako), herriko edo herriaren eragin-esparruko hezkuntza-zentro baterako eskaerak eskaintzak baino gehiago direnean.

Batzorde horien buru herriko alkatea izango da, eta kide hauek izango dituzte: inguruko Hezkuntza arloko ikuskaria, kasuan kasuko udalak proposatutako teknikaria, udalerriko irakaskuntza-zentroetako zuzendariak, sindikatuetako bi ordezkari eta gurasoen elkarteetako beste bi ordezkari (bata sare publikotik eta bestea itundutik). Iruñearen eta Iruñerriaren kasuan, bost zentro-zuzendari egongo dira, bost sare bakoitzeko, eta gainera, inguruko herrietako bi udal ordezkari.

Gaur onetsitako testuaren arabera, Tokiko Eskolatzeko Batzordeek eginkizun hauek dituzte:

- Plaza eskatzen duten guraso eta tutoreengandik hezkuntza- eta gizarte-esparruei buruzko informazioa jasotzea.

- Seme-alabak eskolatzeko aholkuak eskatzen dituzten guraso eta tutoreengana hurbiltzea, hezkuntza-sistemari buruzko informazioa eta derrigorrezko irakaskuntzaren doakotasunari, hezkuntza-zentroi, plaza-kopuruari eta ikasleak onartzeko prozesuari buruzko informazioa ematea.

- Ikasleei buruz jasotako datuak baloratu eta zentro batean eskolatzeko-proposamen bat formulatzea.

- Zentro guztiei beharrian bereziak dituzten ikasleak, gizartean baztertuta dauden kolektiboetakoak eta integrazio berantiarrekoak modu ekitatiboan eskolatzeko laguntzeko lankidetzan aritzen laguntzea.

- Eskolatzeko-proposamena gurasoei, tutoreei, esleitutako hezkuntza-zentroari eta Eskolatzeko Batzorde Nagusiari jakinaraztea.

- Izen-ematearen jarraipena egitea.